

Eutsi Gogor!

ESKOLAKO KIROL ESPARRUAN

EUSKAREN ERABILERA SUSTATZEKO KANPAINA

BIZKAIKO HAINBAT KIROLARI OSPETSUREN ESKUTIK



Kanpainaren ezaugarri nagusiak

laz hasitako egitasmoaren jarraipena dugu eskolako kirol esparruan euskara sustatzea helburu duen proiektu hau.

lazko kanpainak izan zuen arrakasta ikusita, aurtengo ere ***Eutsi Gogor*** izena daraman kanpaina abian jarri da. Horrela, euskara teknikarien asmoa iaz sortutako euskarriei segida ematea izan da, eta horretarako beste bost kirol-jarduerara jorratu dira. Aurtengo euskarriekin batera, iazkoak ere erabiltzeko aukera izango dute teknikariek.

Leloa

Eutsi Gogor!

Helburua

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatu, Bizkaiko Foru Aldundiak babestu eta BBK-k diruz lagundutako egitasmo honen helburu nagusia da euskararen erabilera eskolako kirol esparruan sustatzea.

Hartzaileak

Batik bat, eskolan dabiltzan eta kirol-jardueraren batean aritzen diren neska-mutilak (6-16 urtekoak) baita haien gurasoak ere. Era berean, kirol-azpiegitura publiko nahiz pribatuetakoko erabiltzaileek eta kirolari lotutako dendetako bezeroek jasoko dute kanpainaren berri.

Parte-hartzaileak

Bizkaiko **22** udal

Abadiño • Abanto-Zierbena • Arrigorriaga • Balmaseda • Basauri • Berriz • Erandio • Ermua • Getxo • Gorliz • Laukiz • Leioa • Lemoiz • Maruri-Jatabe • Muskiz • Otxandio • Plentzia • Sopelana • Urduliz • Urduña • Zaldibar • Zierbena.

Kanpainaren edukiak

Kanpainak bi motatako euskarriak dauzka: paperezkoak eta elektronikoak. Horiez gain, GOSE taldeak berriazko abestia sortu du kanpainan erabiltzeko.

- **Paperezko euskarriak:** posterrak, liburuxkak eta egutegia
 - o **Posterrak:** Bost kirol-jarduera landu dira eta bertan jarduera horiei dagokien hitz erabilienak jaso dira. Posterretan kirolari ospetsuak agertzen dira Bizkaiko leku ezagunetan. Ondoko jarduera hauek dira aurtengo jorratu direnak: **txirrindularitza** (Euskaltel Euskadi taldekoak Avellanedako batzar-etxean), **eskubaloia** (Akaba Bera Bera taldeko Matxalen Ziarsolo eta Zulai Agirre eskubaloilariak Balmasedako zubi zaharrean), **sokatira** (Erandioko Goierri sokatira-taldea Axpeko ontziolan), **lasterketa** (Cristina Petite Abadiñon) eta **surfa** (Eneko Acero, Txaber Trojaola eta Garazi Sanchez Bilboko Alhondigan).
Iaz futbola, saskibaloia, pilota eta arrauna landu ziren, baita luzatze-ariketen gaineko poster orokor bat ere.
 - o **Liburuxkak:** 12 orrialdeko bi liburuxka egin dira. Bata **fitness** ariketena eta bestea **igerilekuko ariketena**. Biak ala biak Bilboko Alhondigako langileen laguntzari esker egin ahal izan dira.
 - o **Egutegia:** 2010-2011 ikasturteko poltsikoko egutegia. Bertan, iaz prestatuko aupa oihuekin batera GOSE taldeak kanpainaren zabalkundea egiteko prestatu duen abestiaren letra ere agertzen da.
- **Euskarri elektronikoak:** web gunea, animatzeko oihuak deskargatzeko plataforma eta *Making-off-a*
 - o **Web gunea:** www.aukeratuzeurea.biz helbidean iazko materiala eta aurtengo euskarri guztiak sareratuko dira.
 - o ***Making-off-a*:** Abestiaren grabazioa eta argazki saioen *Making-off-a* egin da.
 - o **Animatzekoak deskargatzeko plataforma:** sms bidez, neska-mutilak animatzeko esamoldeak deskargatu ahal izango dira sakelakora.
- **Abestia:** GOSE taldeak egitasmo honetarako beren beregi sortutakoa.

Zenbat

Paperezko euskarriei dagokienez, 2.000 poster baino gehiago, ia 25.000 liburuxka eta 32.000 egutegi inguru banatuko dira parte hartzen duten herriotako ikastetxe eta kirol-instalazioetan.